Aretxabaletako Udala

2026IKI10005

ALKATETZA DEKRETUAREN JAKINARAZPENA

Alkateak erabakia hau sinatu du.

ESPEDIENTEA: 2026IKI10005

GAIA: Inprimagailu, digitalizazio eta formatu handiko ekipoen hornidura, instalazioa eta mantentzea renting bidez

TITULARRA: ARETXABALETAKO UDALA

ERABAKIA

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluak ematen dizkidan eskuduntzez baliaturik, honako hau erabakitzen dut::

I 26/01314 zenbakidun Alkatetza Dekretua.-

LEHENA: Errentamendu-erregimenean (renting) inprimatze-, digitalizazio- eta formatu handiko ekipoak hornitzea, horien instalazioa, konfigurazioa, martxan jartzea,mantentze integrala barne, kontratatzeko espedientea onartu.

BIGARRENA: Errentamendu-erregimenean (renting) inprimatze-, digitalizazio- eta formatu handiko ekipoak hornitzea, horien instalazioa, konfigurazioa, martxan jartzea mantentze integrala barne, kontratatzeko administrazio klausula partikularren agiria eta baldintza teknikoen agiria onartzea.

HIRUGARRENA: 112.015,75 euroko gastua onartu, honako partiden kontura:
• 1.0601.204.920.00.01 (1308)
• 1.0601.212.920.00.01 (22)

LAUGARRENA: Lizitazio ireki, kontratua prozedura irekia eta erraztua erabiliz eta agindu dagokion iragarkia argitaratu dadila kontratatzailearen profilean

EBAZPENAREN AURKA JOTZEKO BIDEAK

Administrazio-bidea amaitzen duen erabaki honen aurka administraziorekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzitarako epaitegi egokian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c) artikuluarekin bat etorriz.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikulu eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorriz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtsoak aurkezteari kalterik egin gabe.

Sinatzailea	ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA Leire Mujika Garcia
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAAQY5MS.Jvop